



**30/2002 GOMENDIOA, ABUZTUAREN 1EKOA, BILBOKO UDALARI
EGINA, HERRI BARRUKO BIDEAK MANTENTZEKO UDAL
ZERBITZUEN JARDUNAK ERAGINDAKO ONDARE-ERANTZUKIZUNA
ONAR DEZAN.**

Aurrekariak

1. Herri-bidearen egoeraren ondorioz -kutzeta baten estalkia eta lurzorua ez zeuden maila berean- kexagilea erori egin zen eta kalteak jasan zituen.
2. Horregatik, administrazioaren ondare erantzukizunagatiko erreklamazioa egin zion udal horri -2000ko abenduaren 13an-, izan ere, bere ustez, kalteak udalari lepora zekizkioken, bidearen jabea delako, eta bideak ondo mantentzeaz arduratzen den zerbitzu publikoa.
3. Zegokion administrazio-espeditentea bideratu ondoren, udalak erreklamazioa ez onartzea erabaki zuen -2001eko azaroaren 21eko Erabakiaren bidez- uste baitzuen ezin zitzaizkiola udalari leporatu azaldutako egintzak, ez zegoela kausalitate loturarik emandako zerbitzuaren eta sortutako kaltearen artean, eta ziurtatuta geratu zela Telefónica enpresa zela istripua sortu zuen kutxetaren jabea, eta, azken batean, hari zegokiola hura behar bezala mantentzea.
4. Arartekoak, hasteko, hainbat gogoeta helarazi zizkion Bilboko udalari, kasu honetan erantzukizuna leporatzeko arrazoia zein izango zen azalduz: alegia, udalak baduela bere jabari publikoan bestek burutu ditzakeen jarduerak ikuskatzeko ahalmena; eta, gainera, udalak herri-bideak ondo mantenduko direla bermatzeko eginkizuna duela -apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Jaurbidearen oinarriak arautzen dituenak, 25.2 d) artikuluan ezarritakoaren arabera-. Nolanahi ere, Telefónica enpresak erantzukizuna duela uste izanez gero, udalak hasi behar ditu enpresa horren kontrako bidezko ekintzak, halaxe agintzen baitu zerbitzu publikoak emateko baimena duten enpresetatik eratorritako erantzukizuneko araubideak.
5. Gure idazkiari erantzunez, udalak 2002ko urtarrilaren 30eko Erabakiaren kopia bat igorri digu, erabaki horretan erantzun baitzitzaion kexagileak ukapenaren kontra jarri zuen berraztertzeke errekurtsuari. Udalaren aburuz, kontrolatu eta ikuskatzeko dituen eskumenen artean sartzen da herri-bideko instalazioen jabe diren erakundeei aginduak betearaztea eta zigortzea, hala badagokio; baina ez



du eskumenik erakunde horiek zerbitzuak ematean besteri ekar diezazkieketen kalteen gainean.

Horregatik, kalte horiek ordaintzeko sistema alor juridiko pribatuan dagoela uste du.

Gogoetak

1. Espediente honen xedea kexagilearen asmoaren oinarri juridikoa aztertzea da. Hark uste du alegatutako kalteak Bilboko udalari egotz dakizkiokeela, herri-bideak zaintzeko udal zerbitzuaren jarduerak eragin baitzituen.

Aurretiaz, administrazioaren ondare erantzukizuneko araua bere baitan hartzen duen lege esparrua azalduko dugu.

Konstituzioak zera dio 106.2 artikuluan: herritarrek, ezinbesteko egoerak salbuetsiz, beren ondasun eta eskubideetako edozeinetan jasaten duten lesio ororen kalte-ordaina jasotzeko eskubidea dutela, betiere lesioa herri-zerbitzuen jardueraren ondorioz gertatu bada.

Araubide hori Konstituzioaren aurreko beste arau batzuetan jasota zetorren jada, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen bidez -azaroaren 26koa- garatu da. Xedapen arautzaile horren arabera, partikularrek beren ondasun eta eskubideetako edozeinetan lesiorik jasanez gero, herri-administrazioetatik kalte-ordainak jasotzeko eskubidea dute, ezinbesteko egoerak salbuetsiz, betiere lesioa herri-zerbitzuen ohiko edo ohiz kanpoko jardueraren ondorioz jasan bada.

Kalte-ordaina jasotzeko eskubidea sortu dela egiaztatu ahal izateko exijitzen diren betekizunak legearen testutik beretik ondorioztatzen dira, baita Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia ugaritik ere.

Hartara, pertsona bati edo pertsona multzo bati begira, banaka eta dirutan ebaluatzeko moduko kaltea edo galera benetan gertatu dela egiaztatu behar da; kexagileak jasandako ondarezko kaltea edo lesioa herri-zerbitzuen ohiko edo ohiz kanpoko jarduerak eragin duela, alegia, jarduera hori izan dela kaltearen kausa edo ondore zuzena, berehalakoa eta eskusiboa, kausazko lotura aldaraz lezakeen elementu arrotzik tartekatu gabe, ezinbesteko arrazoirik gabe; eta



kexagileak bere jarrerarengatik bere senez eragindako kalterik jasateko behar juridikorik ez duela. Halaber, beste hau ere exijitzen da: gertakariak jazo zirenetik urtebete igaro delako, erreklamatzeko eskubidea iraungita ez egotea.

Konstituzioak finkatzen duen ondare erantzukizunaren araubidea objektiboa edo emaitzazkoa da, eta ez dauka zerikusirik herri-zerbitzuen jardueran izandako inongo erru edo axolagabekeriaren zein omisioren inolako beharrekin.

Herritarrek ez daukate zertan jasan administrazioaren jardueraren ondoriozko lesio edo kalterik. Horrexegatik sortu zen administrazioen erantzukizuna, Zuzenbide Estatuaren berezko bermeen artean. Izan ere, administrazioaren jarduerak, besteak beste, denen interesa lortzen saiatu behar baitu.

Horregatik, administrazioko organoak erreklamazioko eskariaren alde ebatzi beharko du, baldin eta herri-zerbitzuen ohiko edo ohiz kanpoko jardueraren eta eragindako lesioaren artean kausalitate-lotura dagoela egiaztatzen bada.

2. Eskuarrean dugun kasuan, zera argitu behar da, batez ere: ea erorketaren ondorioz pairatutako kaltea udalaren zerbitzu publikoen ohiko edo ohiz kanpoko jarduerak eragin zuen, ala, aitzitik, udalari egotzi ezineko beste zio batek.

Egiaztatu diren gertakariak dagokienez, Herritarren Segurtasun Zerbitzuaren zuzendariak 2000ko azaroaren 22an prestatutako txostenaren arabera, udaltzain batzuek egiaztatzen dute herri-bidean badagoela kuxeta bat galtzada baino bi zentimetro gorago, gutxi gorabehera, eta hura izan litekeela erorketaren zioa. Era berean, kaltetuaren adierazpenak eta espedienteari erantsitako argazkiek argi erakusten dute koska edo desnibela dagoela Bilboko (...) kalean.

Udalak ez du ukatu alegatutako gertakariak egia direla eta erorketa kuxetaren eta zoruaren arteko koskarengatik gertatu zela. Hala ere, erorketa eragin zuten elementuak bere jarduera-eremukoak ez direla uste du, eta Telefónica enpresari dagokiola jardutea, hark egin zituelako lanak galtzadan eta hark jarri zuelako kuxeta hori.

Baieztapen horretan oinarrituta, udalak uste du ezin zaiela udal zerbitzuei egotzi kaltearen kausa. Gure iritziz, ordea, baieztapen hori zehaztu beharra dago.



3. Oro har, udalen eginkizunetako bat da herri-bideen egoera ona ziurtatzea, erabiltzaileek normalki erabil ditzaten. Ondorio hori ateratzen da apirilaren 2ko 7/1985 Legearen -Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituena- 25.2. d) artikulutik.

Zerbitzu publikoa baldintza egokietan emateko betebeharrak hori betetzean, eragotzi egin behar da galtzadan okerrak egotea, kasu honetan, kutxetaren eta zoruaren arteko koska.

Udalaren jarduera hori funtsezkoa da herri-bideen erabilera normala bermatzeko, eta alde batera utzi behar dira udalak herri-bideetan diharduten beste eragile batzuekin dituen harremanak (herri-bidean mantentze-lanak edo instalazioak egiten dituzten enpresak, udalaren aurretiazko baimenarekin, eta udalak kontrolatu eta ikuskatzen dituela).

Beraz, arrazoi honengatik leporatu zaio udalari kaltea: udalak ez duelako bete -herritarrak lasai ibil daitezten- kaleak egoera onean mantentzeko betebeharrak, eta herritarrak arriskuan jarri dituelako, ez baitu seinale bidez ohartarazi bidean ohiz kanpoko irregulartasun edo koska bat dagoela.

Horren gainean, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak -Auzitegi Nagusien etengabeko adierazpenetan- administrazioaren ondare-erantzukizuna onartu du, honako arrazoi hauengatik herritarrei lesioak eragin zaizkienean: kutxeta baten estalkia ez jartzeagatik (Auzitegi Gorenaren 1994ko azaroaren 10eko Epaia); espaloian nekez ikus zitekeen altura bikoitza egoteagatik (Murtziako Auzitegi Nagusiaren 1998ko otsailaren 18ko Epaia); edo gaizki jarrita zegoelako, zorutik zentimetro batzuk ateratzen zen estalki batengatik (Kanarietako Auzitegi Nagusiaren 1998ko martxoaren 20ko Epaia).

4. Edonola, kutxeta jabetza pribatukoa izateak ez du ondare-erantzukizunetik libre uzten udala, bidearen jabea. Horrela, jabari publikoko ondasunen erabilera berariazko edo berezia -halakoxea da, kasu honetan, telefoniako nodoa jartzea- administrazioaren baimen baten menpe egongo litzateke (Ondasunen Araudiaren 78.1 artikulua). Baimena ematean finkatu behar diren baldintzen artean -administrazio titularrak exijitu beharrekoak- honako hau dago: baimendunak egoera onean mantendu behar du jabari publikoa. Halaber, Jabetza Nahitaez Kentzeko Legeak 121 eta 123. artikuluetan ezartzen du zerbitzuaren titularrak zein prozedura erabili behar duen erantzukizuna zehazteko eta betearazteko.



Administrazioak baimendutako enpresak besteri kalteak sortzen dizkionean erabili behar den prozedura berezi hori da, hain zuzen, Arartekoaren jarduera eragin duten antzeko beste kasu batzuetan Bilboko udalak onartu izan duena.

5. Azken batean, administrazioak ezin du ukatu herri-bideak mantentzerakoan duen erantzukizuna, baina, era berean, esku hartu behar du kaltea berak baimendutako enpresaren jardunak sortzen duenean ere.

Laburbilduz, gure ustez, bi arrazoi nagusik eragin zuten erorketa: herri-bideak mantentzeko zerbitzu publikoaren jardunak, batetik, eta galtzadan edo espaloian zoruko edozein ezberdintasun ez ohartarazi izanak, bestetik. Horregatik, Bilboko udalak, zerbitzu publiko horren titular denez, sortutako kalteak ordaindu beharko lituzke.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

30/2002 GOMENDIOA, abuztuaren 1ekoa, Bilboko udalari egina

Baliorik gabe utz dezala 2001eko azaroaren 21eko Erabakia, (...)k aurkeztutako erreklamazioa atzera bota zuena. Izan ere, zenbait kalte sortu ziren herri-bideak mantentzeko zerbitzu publikoaren jardunaren ondorioz eta galtzada edo espaloiko edozein ezberdintasun ohartarazteko betebeharra ez bete izanaren ondorioz, eta udal horrek bere gain hartu behar ditu kalte horiek.

Gero, dagokion administrazio espedientea bideratu ondoren, beste erabaki bat har dezala, kexagileari eragindako kalteetan duen ondare-erantzukizuna onartzeko.